

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA ETA LEGE-ARAUBIDEA

1. artikulua.- Irabazi-asmorik gabeko IGEE IRUNGO GAZTE EKOLOGISTEN ELKARTEA izeneko elkarte eratu da, Elkarteko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorritik.

Elkartea arau hauen mende egongo da: aipatutako elkarteei buruzko legeak, estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira), elkartearen gobernu-organismoek behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jauriaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.- Elkartearen **HELBURUAK** honako hauek dira:

Gizartean, eta bereziki Irunen (Gipuzkoa), guztiok bizi dugun arazo hau plazaratzea eta gazteek parte hartzea ekimen jasangarrietan.

Helburu horiek lortzeko, **JARDUERA** hauek egingo dira, ezarritako legezko betekizunak bete ondoren:

Hitzaldiak eman, galdeketak eta inkestak egin, zein zabor bilketak.

Aurreko paragrafoan azaldutako jarduerak gorabehera, elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:

* Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu. * Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin. * Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatuarekin bat etortzekotan.

EGOITZA SOZIALA

3. artikulua.- Hona elkartearen helbide nagusia: Kalea: IPARRALDE HIRIBIDEA zk.: 4 solairua: 3. ezkerria Udalerria: IRUN P.K.: 20302

Elkarreak beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorrek hala erabakitzen badu.

LURRALDE-EREMUA

4. artikulua.- Hemen, lurralde-eremu honetan, garatuko ditu bere funtzioak elkarteak: IRUN ETA HONDARRIBIAK OSATZEN DUTEN BIDASOAKO ESKUALDEAN.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. artikulua.- Elkartea iraunkorra izateko eratu da, eta VI. kapituluan esaten den bezala ezohiko batzar orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legeetan aurreikusitako arrazoiren batengatik.



Nahi izanez gero, J0D0Z-T2BWD-HFPM bilagailua erabiltuta, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T2BWD-HFPM en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>

Eldia
Jua

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarrizko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

BIGARREN KAPITULUA

GOBERNU- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. artikulua.- Elkartearen aginte eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku egongo da:

* Bazkideen Batzar Orokorra izango da organo gorena. * Zuzendaritza Batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organoa iraunkorra.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua: Batzar Orokorra, bazkide guztiak osatua, bazkideen borondatea adierazteko organoa da.

Hona Batzar Orokorraren ahalmenak:

- a) Elkartearen jardura-plan orokorra onartzea. b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea. c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea. d) Estatutuak aldatzea. e) Elkarteak desegitea. f) Presidentea, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea. g) Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota
- horietatik ateratzea. h) Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea. i) Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea, hala komeni bada. j) Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak aginte-organuari eskuordetu diezaioket horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez. k) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea. l) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. artikulua.- Batzar Orokorra ohiko eta ezohiko bilkuretan bilduko da.

9. artikulua.- Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. artikulua.-Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran, bere ekimenez edota bazkideen %25ek eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira, baina, nolana ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilduko da:

- a) Estatutuak aldatzeko. b) Elkarteak desegiteko.

11. artikulua.-Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira; bilkuren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez hamabost egun pasatu beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tarte utzi beharko da.

Batzar orokorrak -ohikoak nahiz ezohikoak- deialdian balio osoz eratuta geratuko dira lehenengo deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen herena bertaraten bada; eta bigarren

Elgia
Lars

deialdian, botoa emateko eskubidea duten bazkideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.- Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuena baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Nolanahi ere, batzarrean daudenen edo ordezkatuena gehiengo osoa (erdia+1) beharko da gai hauen inguruko erabakiak hartzeko:

- a) Elkartea desegitea.
- b) Estatutuak aldatzea.
- c) Ondasunak erabili edo besterentzea.
- d) Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.

13. artikulua.- Bazkideek edozein bazkideren utzi dezaketen beren ordezkaritza, Batzar Orokorrera joateari dagokionez. Ordezkaritza hori emateko baimena idatzirik egin beharko da, eta batzordeko idazkariak saioa hasi aurretik eduki beharko du. Elkartearen egoitza dagoen herritik kanpo bizi diren bazkideek ordezkaritza beste norbaiten esku uzteko agiria postaz bidali dezakete.

Bazkide bakoitzak bost bazkide ordezkatu ahal izango ditu, gehienez ere.

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea da Batzar Orokorraren xedapen eta zuzentarauei jarraikiz elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa. Bazkideek baino ezingo dute osatu ordezkaritza-organoa.

Zuzendaritza Batzordea osatuko dutenak honakoak izango dira: (EZ ADIERAZI PERTSONEN IZENIK. BAKARRIK ADIERAZI BEHAR DIRA ZUZENDARITZA-BATZORDEAN DAUDEN KARGUAK) (X BATEZ MARKATU)

Presidentea X

Idazkaria x

Diruzaina x

Idazkariak bere gain hartu ahal izango du diruzainaren funtzioa (bi kargu ezberdinak dira, eta, batzuetan, pertsona berberak bete ahal izango ditu)

Presidenteordea

Zenbat bokal gehienez ere:...

Besterik: Zehaztu

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara 3 aldiz jarraian, edo, tarteka 6 aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arazoitzen.

Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak, 5 **URTERAKO**, Batzordeak berariaz baliogabetu ezean. Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.

17. artikulua.- Pertsona fisikoek zein pertsona juridikoen ordezkariak baldintza hauek bete beharko dituzte Zuzendaritza Batzordeko kide izateko:

- a) Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- b) Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c) Erakundeko bazkide izatea.

18. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, lehendabizi Batzorde Orokorrak izangaia hautatu behar du, eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.

Zuzendaritza Batzordeko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake Batzar Orokorrak.

19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek kasu hauetan utziko dituzte karguak:

Eldia

Jura

a) Agintealdia bukatzen denean. b) Dimititzen dutenean. c) Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean. d) Estatutu hauetako 16. artikulua aplikatuz, Batzar Orokorrak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean. e) Hiltzen direnean.

Baldin eta kargua uzteko arrazoiak "a)" idatz-zatian agertzen dena bada, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

Arrazoiak b), c), d) eta e) idatz-zatietan agertzen dena bada, berriz, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu-izendapenak egingo ditu.

Organo honen osieran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkartearen Erregistroari.

20. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak hauek dira:

a) Elkartearen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideekin bat etorritik eta haren kontrolpean. b) Elkarteak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea. c) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari aurkeztea, hark onar ditzan. d) Batzar Orokorraren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea. e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea. f) Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutuak hutsuneak betetzea, betiere elkartearen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorritik. g) Batzar Orokorrak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

21. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen bilkurak presidentea erabaki edo batzordekide batek eskatzen duen bakoitzean egingo dira. Bilkurako buru presidentea izango da, eta ez balego, presidenteordea; eta horien faltan, batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon behar du bilkuran. Berdinketarik egonez gero, buruaren kalitateko botoa izango da erabakigarria.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu eta akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira.

ZUZENDARITZA-BATZORDEKO KARGUAK

PRESIDENTEA

22. artikulua.- Beregain hartuko du federazioaren legezko ordezkartza, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatu ditu. Era berean, aipaturiko bi organo horietako presidentea izango da.

23. artikulua.- Horiez gain, honako eginkizun hauek ere badagozkie:

a) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorraren bilera-deiak egin, bilerak bukatutzat eman, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea. b) Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta elkartearen zereginak bultzatu eta bideratzea. c) Baliotasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea. d) Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea. e) Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak

erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

PRESIDENTEORDEA (HALAKORIK BADA)

24. artikulua.- Presidenteordeak presidenteari lagunduko dio, eta presidenteak aldi batean bere kargua bete ezin badu, presidenteordeak ordezkatu du. Era berean, presidenteak espresuki delegatzen dizkion ahalmenak izango ditu.

IDAZKARIA

25. artikulua.- Zehazki, federazioan sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta bazkideen Erregistro Liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, elkartean arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, erakundearen agiri ofizialak zainduz, federazioaren liburuen eta artxiboen edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketan berri emateko egin beharreko jakinerazpenak eginez agintari eskudunari.

DIRUZAINA

26. artikulua.- Egindako diru-sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar dizkio, eta horrek Batzar Orokorrari, hark onartu ditzan.

BOKALAK (HALAKORIK BADA)

27. artikulua.- Bokalek beren karguei datzekien funtzioak izango dituzte, Zuzendaritza Batzordeko kideak diren aldetik (elkartearen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berak eskatzen dizkiena ere.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTUAK IZATEKO BALDINTZA ETA PROZEDURAK, ETA BAZKIDE-MOTAK

28. artikulua.- Bazkide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsona guztiak izan daitezke elkarteko kide:

- 14 eta 29 urte bitarteko gaztea izatea. Adin nagusiko gaztea izanik (18-29 urte bitarte dituztenak), norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez edukitzea.

Eskumena duen organoak bere baitan hartutako erabaki baliodunaren kopia aurkeztu behar dute, eta bertan adieraziko dira bai elkartzeko borondatea, bai pertsona juridikoaren izenean arituko denaren izendapena.

29. artikulua.- Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea, bi bazkideren sinadurarekin eta presidenteari zuzenduta. Presidenteak eskaeraren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean onartu ala ez. Erabakiaren aurkako gora jotzeko errekursoa jar dakioko Batzar Orokorrari.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

30. artikulua.- Hauek dira bazkideen eskubideak:

1) Elkarteei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak aurkaratzea, aurkaratutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik



aurrera zenbatzen hasita egutegiko berrogei eguneko epean. 2) Elkartearen gobernu- eta ordezkaritza-organoen osakerari, elkarrearen kontu-egoerari eta elkarrearen jardueri buruzko informazioa jasotzea. 3) Elkarteko beste kideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkarrearen ekintzen garapenaren berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan. 4) Batzar orokorretarako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea. 5) Elkarteko Estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organismoetan parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea. 6) Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkarrearen ikurra erabiltzea, baldin badu behintzat. 7) Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea. 8) Talde-ekintza sozialetan parte hartzea, eta bazkideentzako tresnak erabiltzea (federazioaren egoitza, liburutegiak, eta abar). 9) Diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiak buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke. 10) Edozein unetan bajaran ematea. Bajaran eman arren, bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.

31. artikulua.- Bazkideen betebeharrak.

a) Elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea. b) Kuotak, zerga bereziak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako ekarpenak ordaintzea. c) Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea. d) Elkarteko zuzendaritza-organismoek baliotasunez hartutako erabakiei men egin eta erabaki horiek betetzea.

BAZKIDE-IZAERA GALTZEA.

32. artikulua.- bazkide-izaera arrazoi hauengatik gaiduko da:

1. Hilez gero (edo, pertsona juridikoen kasuan, deseginez gero). 1. bazkidea bere borondatez joanez gero. 2. Honelako egoeraren bat gertatzen bada: estatutu hauetatik ondorioztatutako betebeharrak modu larritz ez betetzea, behin eta berriz, eta nahita, edo gauza bera gertatzea Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak hartutako akordio baliodunei dagokienez.

ZEHAPEN-ARAUBIDEA

33. artikulua.- Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak, Zuzendaritza Batzordeak bazkide horiek zehatu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetera eskubideak kentzetik hasi eta elkartetik betiko kanporatzera arteko zehapena ezar daiteke, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.

Horretarako, zehatuak izan daitezkeen jokabideak aztertzeko ikerketa egin dadila erabaki dezake presidentek. Ikerketaren instrukziogilea idazkaria izango da, eta berak proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurriak.

Zehapena ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, idazkariak ez du horretan parte-hartzerik izango (instrukziogilea delako), eta zehapena ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zehatzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtoa jarri ahalgo zaio Batzar Orokorrari.

El Jio
Lore

34. artikulua.- Bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badu, hau da, Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, presidenteak idazkariari agindu diezaioke aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, presidenteak jarduerak artxibatzeko agintzea edo elkartetik kanporatzeko zehapen-espedienteari hasiera ematea erabaki dezake.

35. artikulua.- kanporatzeko zehapen-espedientea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du botorik izango espedienteko instruktorea izan den idazkariak.

Behin-behineko kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, komunikatuz kanporatze-espedientea Ezohiko Batzar Orokorrari helaraziko zaiola, zeinak behin betiko kanporatzeko erabakia hartuko baitu hala badagokio. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputuari bazkide-eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Kanporatze-espedientea lehenengo Ezohiko Batzar Orokorrari helaraziko zaio. Batzarrerako deialdia ez bada hiru hilabetetan egiten, gai horretarako bakarrik egin beharko da, Batzordearen erabakia berresteko edo errebokatzeko.

Idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak inputuak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

36. artikulua.- Behin betiko kanporatze-erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

37. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan —berak nahi izanda edo zehapena ezarri zaiolako— bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

SORTZE-ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUBIDEA

38. artikulua.- Elkartearen **HASIERAKO ONDAREA**60..... eurokoa da.

39. artikulua.- Elkarateak, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:

a) Ondarezko ekarpenak. b) Erabakitzen diren aldizkako kuotak. c) Federazioaren ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta legez jasotzen

dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak. d) Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat

jotzen dituen jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

ELKARTEAREN EKITALDIA ETA EKITALDI EKONOMIKOA urtebetekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren (hilabetea) 1 (e)(a)n (eguna) itxiko da.

Elkarateak jarduera ekonomikoak —zerbitzu-emateak barne— egitearen ondorioz lortzen dituzten mozkinak elkartearen xedeak betetzeko bakarrik erabili behar dira. Mozkinak ezin dira banatu ez bazkideen artean, ez horien ezkontideen edo bazkideekin ezkontzaren antzeko harreman afektiboa

Lare
Elgio

tarteko bizi diren pertsonen artean, ez eta horien ahaideen artean ere; orobat, mozkinok ezin zaizkie dohain laga irabazi-asmoa duten pertsona fisikoei edo juridikoei.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

40. artikulua.- Estatutuak aldatzea propio horretarako deitutako bazkideen ezohiko batzar orokorrean erabaki behar da. Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

41. artikulua.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, presidentek Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du. Zuzendaritza Batzordeak egitasmoa onartuko du edo, bestela, lantaldeari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.

Egitasmoa onartuz gero, hurrengo Ezohiko Batzar Orokorreko gai-zerrendan sartzea erabakiko du Zuzendaritza Batzordeak.

42. artikulua.- Batzarrerako deiarekin batera, Estatutuetak aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horiek Batzar Orokorrari helaraziko zaio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira idazkaritzan.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ONDARE SOZIALAREN ZERTARAKOA

43. artikulua.- Elkartea kasu hauetan desegingo da:

1. Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako Ezohiko Batzar Orokorrean azaldu beharko da.
2. Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
3. Beste elkarte batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
4. Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako.
5. Epai irmo batek federazioa desegitea agintzen duelako.
6. Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.

44. artikulua.-Elkartea deseginez gero, hori erabakitzen duen Ezohiko Batzar Orokorrak Batzorde Likidatzaile bat izendatuko du, dauden funtsez ardura dadin.

Bazkideekiko eta besteekiko elkarte-betebeharrak bete ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, irabazi-asmorik gabeko entitatearen bati edo irabazi-asmorik gabeko ekimeneren bati eman beharko zaio.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Eraketa-aktan behin-behinekoz izendatuak agertzen diren Zuzendaritza Batzordeko kideek egiten den lehenengo Batzar Orokorraren esanetara jarri beharko dute beren izendapena.

AMAIERAKO XEDAPENA

Eldia
Lara

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak barne-araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetakoa aginduak aldatuko.

Elcija
Lara